

KRONIKA > «GAUR, EUSKARA PRAKTIKATU. BIHAR, EUSKARAZ BIZI»

EUSKARAZ BIZITZEKO MOTIBAZIOA, NORBERAREN ILUSIOA PIZTUZ

Nerea GOTI

HIZLARI BATEK PLANTEATU ZUENEZ, BADI-RUDI PRESTIGIO HANDIAGO AUKALA EUSKARA JAKITEAK EUSKARAZ BIZITZEAK BAINO. EKUazio HORRI BUELTA EMATEKO, EUSKARAZ JARDUTEKO MOTIBAZIOA LANTZEKO ZENBAIT IDEIA PLANTEATU ZITUZTEN ATZO BILBON, ERAGIN POSITIBOAK EMATEA EDOTA ILUSIOA TRANSMITTITZEA KASU.

“Gaur, euskara praktikatu. Bihar, euskaraz bizi” jardunaldien bigarren edizioa egin zuten atzo, Bilbon, AEK-k antolatuta, Bizkaiko Aldundiaren eta Lakuarren babesarekin. Hiru hizlari: Lorea Agirre, Karmelo Ayesta eta Lutxo Egia. Hirurek gai baten gaineko zenbait hausnarketa aipatu zituzten, beren bizipenetatik abiatuta azaltzeko euskararen normalizaziorako motibazioan nola eragin.

Entzuleen artean, mintza-praktika egitasmoetako dinamizatzaileak, euskara teknikariak,

euskara elkarteetako kideak eta euskaltegietak irakasleak nagusiki.

Espero zitekeenez, gaiak esperientzia ugariaren kontaktari ematen zion bide, euskaldunak egunerokoan aurki ditzakeen egoerak plazaratzeko eta horien artean zelan jokatu behar gureen motibazioan sakontzeko.

ERAGIN POSITIBOAK

Lutxo Egia “Transitoak” izeneko bere performance-aren inguruko zenbait kontu azaldu zituen eta mezu bat zabaldu zuen: «Ohituta gaude lehen hitza euskaraz egiten, baina bigarrena eta hirugarrena ere egin ditzakegu», jakinda horrek eragin bat duela. Normalizaziorako garrantzitsuenak diren eraginak «kontzientiak eta positiboak» dira, bere ustez. Lehenengoek nori eragin, zertan edota noraino zehazten dutelako. Esan zuenez, inportanteena ere bada «predisposizio batzuk detektatzeko». Beste ideia bat luzatu zuen, euskaldun eta erdaldunen arteko zubiak egitea, baita proposamen bat ere, Euskararen Egunari begira, «beste modu batean ospatzeko».

Esan zuenez, politikoagoa izan beharko luke ospakizunak eta ez folklorikoa, ezta erreibindikatiboa ere. Horregatik planteatu zuen esperientzia bat: egun horretan euskaldun eta er-

daldunen arteko bikoteak osatzeko eta egun osoa euskaraz egitea. «Erdaldunek ikusiko zuten euskaraz bizitzea zer den», azaldu zuen horrek eduki litzakeen emaitzen artean.

Mahai-inguruan, bestelako egoera batzuk ere agertu ziren, igorritako galderen bitartez. Horien artean, bere aitari «gaurtik aurrera ez dut euskaraz egingo» esaten dion seme-alabarena, “Euskaldun baten hizkuntza-bidaia” idatzi duen Karmelo Ayestari zuzenduta. «Ez nuke inoiz matraka eman nahiko», onena da «norberak ereduarekin praktikatzeko» eta «asertibitatea eta emozioa» lantzea, erantzun zuen. Gero, txantxetan, kontrako norabidea azaltzeko: «Semea, nik zer egin dizut ba erdaraz egiteko?».

Agirrek gaiari heldu zion etxean gertatutako pasadizo bat kontatuz, zazpi urteko alabak espainolak eta euskaldunak munduan zenbat ziren galdetu zioneko. Onartu zuenez, ume baten motibaziorako okerrak ziren bi argudio atera zitzaizkion, euskaldun jaio eta betiko euskaldun izango zela eta euskara Europako hizkuntza zaharrena dela. Nabarmendu zuenez, motibazioaren bidean arrakasta izateko aukera guztiak dauzka «berria eta bizia» denak eta «bali» duenak.

Beste gai bat, galderen txandari: hainbat erabilera plan eta txosten prestatu eta esperotako emaitzak lortzen ez dituzten euskara teknikarien frustrazioa. Arregik «erosotasun eremutik kanpora salto» egiteko proposatu zuen, eta beste ekarpen bat, «ateak zabaldu» eta herritarrek zein eragileek parte hartzeko «guneak» eratzearen gomen-dioa. Bide beretik, euskara elkarteetan euskararen normalizazioaren alde lanean urteak eman dituzten lagunen artean sor daitekeen «etsipena» agertu zen. Ayestaren ustez, garrantzitsuenak da eredu izatea, eta «etsipenez ari bagara, etsipena transmitituko dugu».

Azterketen gaineko hausnarketa ere mahairatu zuten galdetuz kuantitatiboak edo kualitatiboak izan beharko liratekeen. Agirreraren arabera, zergatia «espizitatzea» da onena. «Goazen ikertzera zelan, zergatik eta zer emozio eragiten digun».

San Filippo gaitza dutenentzako funtsak batzeko jaialdia, Bilbon

GARA | BILBO

Itxas-Alde dantza taldeak elkartasun eta ongintzazko dantza eta musika jaialdia ospatuko du azaroaren 22an Bilboko Campos Eliseos antzokian (18.00) Stop San Filippo Fundazioarentzat funtsak batzeko asmoz.

Emanaldian Esti eta Olatz bikoteak, Gotzon Arrien bakarrizketariak, Bilbao Mapa Mundi bilbainaden laukoteak eta Jon Zabal mago mentalistak hartuko dute parte. Hamar euroan salduko dituzte sarrerak saioaren egunean bertan.

Fundazioak San Filippo gaitza duten haurrei eta haien familiei babesa eskaintzen die, eta ikerkuntza sustatzen du. Gaitz hau «gaixotasun arraroen» zerrendan dago.

Esteban, Etxeberria eta Catalan dira Jakiundeko kide berriak

GARA | BURGARA

Maria Jesus Esteban matematikaria, Francisco Etxeberria mediku eta forentsea eta Teresa Catalan pianista eta konpositorea dira Jakiunde akademiako kide berriak. Atzo Bergaran ospatu zuten batzurrean kide berriei ongietorria emateaz gain, Gurutz Jaureguik eskaintako hitzaldia entzun zuten eta gizarte arazoak konpontzeko bidean gai desberdinen inguruan eztabaidatu zuten.

Bestalde, Iosu Zabala Mondragon Unibertsitateko errektore ohia Jakiundeko Ohorezko akademiko izendatu zuten. Donostian Ingeniaritza ikasi ostean Estatu frantsesean espezializatu zen. Ikerlan eta Fagor Etxetresnak enpresetan aritu zen ondoren.



Lutxo Egia hizlari atzo, Bilboko Ondare aretoan.

Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS